Elebitasuna, abantaila ala erronka?

Eitb-ko *Teknopolis* saioaren bidez, elebitasunak geure burmuinean nola funtzionatzen duen ikasiko dugu.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Gaiaren gaineko hiztegia ezagutu.**
- **Entzundakoari buruzko ulermena landu.**
- **Zeure esperientziaren berri ahoz eman.**
- **Hizkuntza batetik bestera igarotzeko arrazoiak ezagutu (kode-aldaketa), eta horren inguruko iritzia ahoz eman.**
- **Elebitasunaren inguruko ahozko eztabaida egin.**



Pixabay

Ikusi aurretik

BAKARKA

1. Hiztegiarekin jolasean

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Sekuentzia honetan bideo bat ikusiko duzu, eta hemen dituzu bertan entzungo dituzun zenbait kontzeptu. Bilatu eta elkartu sinonimoak.

Sinonimoen bila

gaitasuna
eremua
hitza
esparrua
zangotrabak
ahalmena
oztopoak
elea

1. _____ = _____
2. _____ = _____
3. _____ = _____
4. _____ = _____

Erantzunak 7. orrialdean daude.

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Jarraian hiru kontzeptu dituzu; ba al dakizu zer esan nahi duten? Saia zaitez definitzen.

eleanitzak

_____

_____

elebakarrak

_____

_____

elebidunak

_____

_____

Erantzunak 7. orrialdean daude.

Ikusi bitartean

BAKARKA

2. Zer kontatu digute *Teknopolis* saioan?

Entzun arretaz Eitb-ko *Teknopolis* saioan Kepa Erdoziari egindako elkarrizketa, eta aukeratu bideoaren ideia nagusirik egokiena.



Eitb

Hizkuntza bat baino gehiago burmuinean

eitb

a) **Gaur egungo ikerketen helburua da erakustea hizkuntzak modu independentean gordetzen direla garunean.**

b) **Elebitasunari buruzko ikuspegi zientifikoa aldatu egin da, burmuinaren funtzionamendua hobeto ulertu ahala.**

c) **Hizkuntza bakoitzak kultura eta emozio independenteak sortzen ditu garunean.**

BAKARKA

Erantzun ondoko galderei, bideoan entzundakoaren arabera.

1. **Zer egiten dute, normalean, potentzia inperialistek hizkuntzari dagokionez?**

2. **Zein ideia baztertu dute gaur egungo ikerketek hizkuntzen burmuineko antolaketari buruz?**

3. **Zer ondorio atera dute oraingo ikerketek?**

4. **Zein adibide erabiltzen du Kepa Erdoziak hizkuntzen arteko kontzeptu komunak azaltzeko?**

5. **Nola ikertzen dute elebitasuna?**

6. **Zer desberdintasun dago lehen eta bigarren hizkuntzen artean?**



Eitb

Adierazi ondoko baieztapenak zuzenak ala okerrak diren.

1. Elebidunak munduan gutxiengoa dira.
2. Lehen uste zuten hizkuntza bakoitzak bere lekua zuela garunean.
3. Mahai" eta "mesa" kontzeptu desberdinak dira.
4. Esperimentuetan elebidunei egoera errazak jartzen dizkiete.
5. Lehen hizkuntzarekin lotura emozional handiagoa izan dezakegu.



Osatu esaldiok entzundako informazioarekin.

1. Euskal Herrian jende askok _____ dakizki, hau da, _____ da.
2. Gaur egun ikusi dute hizkuntzen arteko banaketa _____.
3. Kontzeptuak behin bakarrik edukita _____.
4. Ikertzaileek elebidunei _____ jartzen dizkiete ikertzeko.
5. Lehen hizkuntzan hartutako erabakiak _____ izan daitezke.

Behar izanez gero, ikusi berriro bideoa. Ondoren, elkartu ikaskide batekin eta alderatu/hobetu erantzunak. Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

Ikusi ondoren

TALDEAN

3. Hizkuntza bat baino gehiago dakizunean

Elkartu hiruko taldeetan, eta erantzun ondoko galderoi.

- Zenbat hizkuntza dakizkizue?
- Noiz eta nola erabiltzen dituzue?
- Hizkuntza aldatzen duzue elkarrizketan? Noiz? Zergatik?
- Lehenengo hizkuntzan hartzen dituzuen erabakiak emozionalagoak direla uste duzue? Adibiderik?

Partekatu erantzunak talde handian.

TALDEAN

4. Kode-aldaketa

Jarraitu hiruko taldeetan. Aztertu bideoan entzundako esaldiok, eta esan zergatik egiten den kode-aldaketa. Funtzio gehiagorik bururatzen zaizue hizkuntza batetik bestera igarotzeko?

	Adibidea	Funtzioa
A	*“saltar de un idioma a otro en una misma conversación”*	
B	*“Même en français”*	
C	*“mahaia/mesa”*	

Funtzio gehiago:

Partekatu erantzunak talde handian.
Erantzunak 7. orrialdean daude.

KODE-ALDAKETA

Kode-aldaketa da hiztun elebidunak hizkuntza batetik bestera igarotzea elkarrizketa berean.

Hainbat arrazoi egon daitezke horrela jokatzeko, beti ere lengoaia bietan aritzeko gaitasuna badago:

- identitatea adieraztea
- gertutasuna sortzea
- hitz egokiena aukeratzea
- diskurtsoari ñabardurak ematea
- indar adierazkorra ematea
- gaiari zehaztasuna ematea
- itzulpen-arazoak saihestea
- beste pertsona batzuek esandako hitzak ekartzea
- hutsune bat betetzea, hitza falta denean
- birformulazioa egitea
- ...



Pixabay

Jarraitu hiruko taldeetan. Irakurri ondoko baieztapenak, eta eman zeuen iritzia. Ados al zaudete? Zergatik?

“Kode-aldaketa hiztun elebidunen gaitasun komunikatiboaren adierazgarri da”

“Gazteen artean euskara eta erdara nahasteko joera, zona euskaldunenetan, ongi eta erraz egiten dutenen artean, galera da aberastasunerako. Euskaraz hain erraz aritzen ez diren eremuetan, ordea, positiboa izan daiteke; izan ere, erdal mundutik euskarara hurbiltzea adierazten du”



Adimen artifizialak sortutako irudia



Partekatu erantzunak talde handian.

TALDEAN

5. Elebitasuna abantaila ala erronka da?

Jarraian, eztabaida gidatuan parte hartuko duzue, talde handian. Horretarako, lehenik, ondoko galderen inguruan, nork bere iritzia eta argudio nagusiak prestatuko ditu, bakarka. Ondoren, irakasleak proposatutako galderei erantzunez, zeuen esperientziak, iritziak eta hausnarketak partekatuko dituzue.

GAIA: Elebitasuna, abantaila ala erronka?

1 Esperientzia pertsonaletik abiatzeko

- Zein hizkuntza erabiltzen dituzu egunerokoan, eta zergatik?
- Hizkuntza batetik bestera pasatzen zara modu naturalean?
- Noiz sentitzen zara hizkuntza batean bestean baino erosoago?

2 Elebitasunaren abantailak aztertzeko

- Zer onura izan ditzake elebiduna izateak maila pertsonalean?
- Burmuinaren funtzionamenduan eragin positiboa izan dezake?
- Lan-munduan edo ikasketetan abantaila dela uste duzu?
- Hizkuntza gehiago jakiteak mundua ikusteko modua aldatzen du?

3 Erronkei buruz hausnartzeko

- Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeak nahasmena sor dezake?
- Beti hizkuntza bat izango da nagusia?
- Hizkuntza gutxitu batean bizitzeak presiorik sortzen du?
- Kode-aldaketa beti naturala da, ala batzuetan deserosoa izan daiteke?
- Elebidun guztiek maila bera dute hizkuntza guztietan?

Erreparatu ikaskideek egiten dituzten kode-aldaketei, eta, eztabaida bukatzean, komentatu talde handian.

Irakasleak emango dizue feedbacka.

ERANTZUNAK

1. Hiztegiarekin jolasean

- 1. gaitasuna = ahalmena 3. eremua = esparrua
  2. hitza = elea 4. zangotrabak = oztopoak
- eleanitzak: eleaniztunak, hainbat hizkuntzatan mintzatzen direnak.
  elebakarrak: hizkuntza bat bakarra dakitenak.
  elebidunak: bi hizkuntza dakizkitenak.

2. Zer kontatu digute *Teknopolis* saioan?

- b
- 1- Euren hizkuntza eramaten dute, eta inposatu nahi izaten dute hizkuntza bakarra.
  2- Hizkuntza bakoitzak baduela bere esparrua garunean.
  3- Banaketa hori ez dela horren argia, badirelako alderdi batzuk hizkuntzan komunak direnak: kontzeptuak, adibidez.
  4- Mahaia-*mesa* (euskaraz zein gaztelaniaz) kontzeptu bat da; hortaz, kontzeptu guztiak behin edukita burmuinean, aski da. Gero, batean edo bestean esan, eta kitto.
  5- Elebidunei oztopoak jartzen dizkiete, euren ahalmena egoera zailetan jartzeko.
  6- Lehenengo hizkuntza beti izango da lehenengoa (bi ere izan daitezke), eta ikerketek diote lehenengo hizkuntzan hartutako erabakiak emozionalagoak direla bigarrenean hartutakoak baino.
- 1- okerra, gehiengoa dira; 2- zuzena; 3- okerra, kontzeptu bat dira; 4- okerra, zailak; 5- zuzena.
- 1- bi hizkuntza; elebiduna. 2- ez dela horren argia. 3- nahikoa da. 4- oztopoak/zangotrabak. 5- emozionalagoak.

4. Kode-aldaketa

A- naturaltasuna/gertutasuna; B- umorea/aniztasuna azpimarratzea; C- kontzeptu bat dela azaltzea.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Burmuinak elebidunak dira. Buru barruan dugun neuronazko masa hizkuntza batek baino gehiagok osatua dago.

Bitxikeria bat da. Gauza berezia da.

Modu enpirikoagoan. Esperientzian eta behaketetan oinarrituta.

Zangotrabak jartzen dizkiegu. Oztopoak, zailtasunak jartzen dizkiegu.

Hitzez hitzezko adieran: norberaren zangoaz bestearen zangoa trabatzea.

TRANSKRIPZIOA

Iñaki Leturia: Kaixo, ez da batere arraroa *saltar de un idioma a otro en una misma conversación*, euskaratik gaztelaniara, normaltasun osoz. *Même en français. Y eso es posible* gutako askoren burmuinak elebidunak edo eleanitzak direlako. Horixe da gaurko gaia. Has gaitezen.
Offean: Kepa Erdozia Uriarte EHUko Gogo Elebiduna ikerketa-taldeko kidea da. Hizkuntzalaritzan doktorea da, eta elebitasuna burmuinean nola gauzatzen den ikertzen du.
Iñaki Leturia: Kaixo, Kepa. Euskal Herrian jende askok hizkuntza bakarra ez, bi edo gehiago dakizkigu, ezta? Hori ere bitxikeria bat da.
Kepa Erdozia: Hori bitxikeria...
Iñaki Leturia: Elebitasuna, alegia.
Kepa Erdozia: Bai, bai. Ez. Euskal Herrian oso ohituta gaude, ez? Euskaldun guztiok gara elebidunak, gutxienez, ez?, edo hiru-edo jakin ditzakegu. Eta egia da, ba, inguruan ditugun hizkuntza nagusi edo handiak-edo, ba, izan direla bere garaian ere nolabaiteko potentzia kolonialak edo inperialistak edo horrelako zerbait, eta normalean eraman dute beraien (euren) hizkuntza, ez?, normalean, inposatu nahi izan dute hizkuntza bakarra, ez? Eta horregatik daukagu pertzepzio hori, ba, normala, edo norma (araua), elebakartasuna dela. Baina ez da hori inondik inora. Munduan, askoz gehiago gara elebidunak, elebakarrak baino.
Iñaki Leturia: Kontxo! Zure ikergaia horixe da, hain zuzen, ezta?: burmuin elebidunak nola funtzionatzen duen, ezta? Baina, lehenik, hizkuntza bat ikasten dugu, eta gero datoz besteak, ezta? Nola antolatzen dira bigarren, hirugarren, laugarren... hizkuntza horiek gure burmuinean?
Kepa Erdozia: Bai, oso galdera interesgarria da hori ere, ez? Egia da, bueno, badirela ere (, halaber,) bi hizkuntzak batera ikasten dituzten haurrak, eta, gero, ba, pertsonak ere, ez? Eta elebitasuna modu enpirikoagoan-edo ikertzen hasi zirenean, eta hasi zirenean esperimentazioa egiten eta horrela, pentsatzen zuten hizkuntza bakoitzak bazuela bere esparrua garunean. Ez? Eta, orduan...
Iñaki Leturia: Bere toki fisikoa, nolabait.
Kepa Erdozia: Hori da, bai, nolabait, ez? Eta badira bideoak eta badira ikerketak erakusten dutenak, ez?: “Hemen dago txinera eta hemen dago japoniera” edo. Eta hori zen, pixka bat, egiten zen ikerketa. Gaur egun, ikusi dugu, batez ere, ez dela horren argia, bai?, separazio edo banaketa hori ez dela, ez dela horren argia, batez ere hizkuntzaz ere gero eta gauza gehiago dakizkigulako, eta badaude alderdi batzuk hizkuntzan komunak izan daitezkeenak hizkuntza guztietan, bai?

Adibidez, kontzeptuak, ezta?: nik hitz bat esan behar baldin badut, pentsatu dezaket, ba, mahai bat, ezta? Mahai bat, kontzeptua bera, bai nire euskaraz edo bai nire espainolez, berdina (bat) izango da. Orduan, kontzeptu guztiak behin bakarrik edukita, nahikoa da. Egia da gero errealizazioa, bai?, izango dela, ba... Batzuetan esan beharko dut "mahaia", eta beste batzuetan esan beharko dut "mesa" espainolez, ez?

Iñaki Leturia: Oso interesgarria. Eta nola ikertzen da hori guztia? Ez dakit zer teknologia erabiltzen duzuen gure burmuin barruan begiratzeko.

Kepa Erdozia: Teknologia-teknologia baino gehiago, guk egiten duguna izaten da elebidunei nolabaiteko zangotrabak jartzen dizkiegu, bai?

Iñaki Leturia: Eta hori, zer da hori?

Kepa Erdozia: Bai, esperimentuak egiten dizkiegunean, gustatzen zaigu elebidunek daukaten ahalmen hori (horri), bi hizkuntzak erabiltzeko ahalmen hori, nolabait, buelta bat eman, eta egoera zailetan jarri.

Iñaki Leturia: Existitzen da lotura berezi bat hizkuntza jakin batekin, ez? Zer eragin du horrek zientziaren ikuspuntutik?

Kepa Erdozia: Bai, lehenengo hizkuntza beti da lehenengo hizkuntza —esan dizut, batzuetan, bi lehenengo hizkuntza ere izan daitezke—. Badira ikerketa batzuk erakusten dutenak lehenengo hizkuntzan hartzen ditugun erabakiak emozionalagoak direla bigarren hizkuntzan hartzen ditugun erabakiak baino.